


Oregoneko herritarrek Measure 110 (110. neurria) onartu zu-

ten 2020an, hauteskunde presidentzialekin batera egin zen erreferendumean. 1,3 milioi herritarrek bozkatu zuten proposamenaren alde, hau da, boto-emaileen %58,46k. Drug Policy Alliance elkarteak Cassandra Frederique-k azpimarratu zuenez, «paradigma-aldaketa historikoa da, eta drogen aurkako gerran garai-pen bat; lehen aldiz, gure nazioan, droga guztien despenalizaziorako neurri bat da. Honek baieztatzen du aldaketa nabarmena egon dela, herritar gehiago daudela drogen erabilera osasun-zerbitzuekin tratatzearen alde, eta ez kriminalizazioaren bidez». Izan ere, «drogak edukitzea da AEBetan atxilotuta gehien atzean dagoen delitua, 23 segundorik behin atxilotzen da norbait. Oregonek erakutsi du mundu gizatiarrago eta gupidatsuago bat posible dela. 110. neurria eredu eta abiapuntu bihurtuko da».

Ezetzaren kanpainakoei esan zuten tratamendurako gune eta leku gehiago sortzearen alde zeudela, baina ez zeudela ados, aldiz, despenalizazioarekin. «Halako neurriek droga-trafikatzaileen arriskua murriztu eta kaleetan dagoen droga-kopurua igotzea dakar. Lortzeko errazagoak eta merkeagoak izango dira drogak, eta haurrek bereziki sufrituko dute». Washington konderriko barruti-fiskalak adierazi zenez, «uste dut denok bat gatzela esateko hau esperimentu bat dela. Galdera handiena da zer egingo dugun menpekotasun handia sortzen duten ka-



FENTANILOAREN KRISIA

Oregonek drogak edukitzea zigortu du berriz ere, urteotako politika irekietan atzera eginez

JENDARTEA / Urtzi URRUTIKOETXEA

Azken urteotan, AEBetako mendebaldeko Oregon estatuko politika berritzaileak izan ditu legez kanpoko drogei buruz. Hiru urtez iraun duen esperimentuak tratamenduan jarri du fokua, zigorrean jarri beharrean. Baina fentaniiloaren krisiak bete-betean harrapatuta, atzera egittea erabaki dute aurten. Irailetik, drogak izatea espetxe zigorrak ekar ditzakeen delitu bihurtu da berriz ere.

leko droga horiekin, tratamenduan ez sartzea erabakitzen duten nerabeekin».

Eztabaidaren ostean eta herritarrek bozkatuta, arau hura estatuko lege bihurtu zen eta hala, Oregon AEBetako estatutik irekiena izan da azken urteotan drogen trataerari buruz. Funtsean, norbere

kontsumorako edozein droga edukitzea espetxe-zigorra zekarren delitua izatetik gehienez ere ehun dolarreko isuna izango zuen falta izatera igaro zen. Neurriaren helburua, errehabilitazioan eta drogamenpekotasunean zeudeneko estigma bukatzea zen. 260 milioi dolar baino gehiago

erabili ziren –legezkoa den marihuanaren zergei esker bildutako dirua – gaiaren inguruko finantzaziorako, menpekotasunaren tratamenduetarako, etxebizitza-zerbitzuetarako eta enpleguan.

ARAZOAK

2020 pandemiaren urtea izateaz gain, Donald Trumpen agintaldiaren amaiera ere izan zen. Bere autoritarismoarekin, probokazioekin eta polizia-neurriekin alderatuta, mugimendu progresistek azken urteetan landutako eta beste herrialde batzuen ereduetan inspiratutako proposamenak egin zituzten hainbat gai sozialetan, izan etxebizitza eta

Goiko irudian, opiazeoen ondorioz hildakoen lagunek eta familiek New Yorkeko parke batean atondutako oroitzeko gunea.
Andrew LICHENSTEIN | GETTY IMAGES

etxegabeen arazoak, izan dro-
gak eta, ezin ahaztu, George
Floyden hilketak agerian utzi-
tako polizia-indarkeriaren eta
arrazismoaren arazo sakona;
poliziarren finantzaketa etete-
ko hainbat eragile eta ordezkari-
rik egindako eskari eta guzti.
Trumpen aurrean, udal aurre-
rakoienek etorkinak, gutxien-
goak eta, oro har, gizarteko
jende baztertuena babesteko
neurriak hartu zituzten.

Xede onenek, baina, bestelako ondorioak ere izan zituzten: AEBetako pantaila guztietan agertu ziren Portland eta beste hiri batzuetako irudiak, erdiguneko kaleetan egun argiz ere dozenaka lagun drogak kontsumitzen eta bazterrean kolokatuta edo botata erakusten zituztenak. Oregoneko hiri handienez bizi den edo hara bisitan doan edonorentzat irudi gogorra da erdigune historikoan hainbeste gizon-emakume ikustea kalean noraezean, bide-bazterrean etzanda, taldean batzuetan, bakarka besteetan. Inorekin sartu gabe ia beti, haserrealdi gehienak talde barruan izan ohi dituzte, baina arazoa hor dago, eta begi-bistakoa da hiriaren erdi-erdian.

Datuak ere izugarriak dira: ia %50 egin dute gora bi urtean gaindosiek eragindako heriotzek: 2021ean, drogak edukitzea despenalizatu zen urtean, 1.171 hil ziren. Iaz, 1.683 izan ziren, gaitzen kontrol eta prebentziorako zentroaren arabera. Euskal Herriak baino %30 biztanle gehiago ditu Oregonek, 4 milioi pasatxo; hau da, estrapolatuta, 1.250 euskal herritar gaindosiz hiltzea bezalakoa litzateke. Oregoneko Osasun Agintaritzaren datuek diotenez, opiazeoen ondorioz gertatu dira heriotza gehienak, fentaniloagatik batez ere.

Lehen ere San Frantziskok eta beste hiri batzuek antzeko arazoei aurre egin behar izan diete. Kaliforniako hiri progresistaren kasuan, alkateak etxegabeentzako egoitza asko eraiki zituen agintaldiaren hasieran, baina azken urteotan nabarmen egin du eskuine-rantz kriminalitateari aurre egiteko asmoz.

Oregoneko kasua iraultzailea izan bada ere, agintean egonda mugimendu eta plan-teamendu progresistek sarritan izaten dituzten arazoak uzten ditu agerian: arazo sakon eta konplikatupei asmo onenez diseinatutako programak porrot egitea. Baliteke planak egokiak izatea, baina sarritan ez dira behar beste aintzat hartzen albo-kalteak, politika horiek garatu behar dituzten barne-elementu eta baliabide batzuen errezeloa (poliziarrena eta haien inguruko erakundeena, kasu, ezkerreko politikarien agintepean egon arren) eta neurrien aurkakoei egingo dituzten alarma-albisteetan aurrean garatu

Datuak ere izugarriak dira: ia %50 egin dute gora bi urtean gaindosiek eragindako heriotzek. Drogak edukitzea despenalizatu zen urtean, 2021ean, 1.171 hil ziren; iaz, 1.683

Aldaketa sakon guztiek pazientzia eta denbora behar dute, baina era berean, herritar askoren beldurra benetakoa da, eta datuek ere agertu dute okerrera egin dutela osasun-arazoek

beharreko komunikazio-politikak. Ahaztu gabe aldaketa sakonen ondorioak nabaritzeko beharrezkoa den denbora; ikuskizunaren politika populistak eta hauteskundetako ziklo laburrek ia guztia kontsumo bizkorrera bultzatu dute, baita arazo sakonentzat bilatu beharreko konponbideak ere.

ERREZETA ZAHARRAK

Oro har, progresistak diren hiritan behin baino gehiagotan egon da arazo hau: arazo sozialak laster konpondu ezean, poliziaren eta neurri gogorra-
goen aldeko hautagai demo-

Droga-menpekotasunaren datuak izugarriak dira Oregonen. Bi urtean ia %50 egin dute gora gaindosiek eragindako heriotzek.
Andrew LICHTENSTEIN | GETTY IMAGES




krata zentristagoek jo izan dute primarioetara (hiri horietan, errepublikanoetan ez dute inolako aukerarik). Azkenean, alkateek aulkiari eusteko bolarantzi eragin eta eskuine-rantz jo izan dute. Aldaketa sakin guztiek pazientzia eta denbora behar dute, baina era berean, herritar askoren haserrea eta beldurra benetakoa dira, eta datuek ere agertu dute okerrera egin dutela delituek edo drogekin lotutako osasun-arazoei. Horren aurrean erre-zeta zaharretara itzuli ala neurri berrietan sakondu behar ote den galdera zaila da, maila teorikotik kaleetako egunero-kotasunera eta herritarren ongizatera doan kudeaketan ibili denak ondo dakienez.

Measure 110 neurriaren alde egon zen pertsonetako bat Ted Wheeler Portlandeko alkatea izan zen, hiriko boto-emaleen hiru laurdenen gisa. Egun airtortzen du «menpekotasun-tasek eta gaindosiek izugarri egin» zutela gora, «ez dut uste dena Measure 110en ondorioz izan zenik, baina jendearentzat oso erraza zen biak lotzea –droga gogorrak zigorgabetzea eta adikzioa eta gaindosiak zein drogekin lotutako kriminalitatea ere haztea–».

Alkateak estatuko ardura-
dunei egotzi die legeak zeuz-
kan helburuak ez betetzea.
Drogen kriminalizazioa ken-
tzearekin batera, behar beza-
lako tratamenduak ahalbide-
tzea zen asmoa, eta lehen
neurria indarrean sartu ba-
zen ere, menpekotasunetik
askatzeko urratsik ez zela
izan salatu du alkateak.

«Estatuak kale egin zuen neurria ezartzerakoan. Eta unea ezin okerragoa izan zen: drogen erabilera zigorgabetzea, tratamendu-zerbitzuak behar bezala izan gabe, akatsa izan



zen. Estatuak artatzeko osasun-zentroak (*behavioral health centres*) eraikitzea zen kontua, eta behin hori egindakoa drogak zigorgabetzeari ekitea. Ez alderantziz».

2020an hamar herritarretik seik bozkatu zuten drogen aurrean ordura arte izandako jarraera aldatu eta zigorrik gabe ko bestelako neurrietan oinarritutako araua ezartzea. Azken inkestetan, hala ere, %64k zioen legean atzera egitea nahi lukeela, osorik edo, gutxienez, zenbait neurritan. Eta arauaren bultzatzaileek gutxiengoak bereziki zigortzen zituen justizia soziala aipatu bazuten ere, datuek diote atzera egitearen aldeko kopuru handienak beltzen eta latinoen artean zeudela.

Joan den udaberrian, legean atzera egin zuen Oregoneko Kongresuak; gobernadoreak sinatu ostean, irailean sartu da indarrean. Legearen bultzatzaile batzuek neurriari aurrea egiteko aukerarik ez ematea

egotzi diete politikariei, hauteskunde-zikloek izututa atzera eginazteraino. Bitartean, Portlandeko poliziak jakinarazi du preso hartuko dituela aldean drogak dituztela harra-patzen dituztenak.

ZERK EGIN DU KALE?

Zer gertatu zen, beraz, asmo onenez onartutako esperimentuak kale egiteko? Ameriketako Estatu Batuetan halako neurriak hartzen diren lehen lekua izan arren, munduan zehar arrakasta izan du beste gune batzuetan. Portugalen kasuarekin alderatu dute; han drogak eragindako heriotzak %75 jaitsi dira, baina bi hamarkada behar izan dituzte horretarako. Iberiar Penintsulako herrialdeak gaindosi-tasa handia zuen 90eko hamarkadan eta, gaiari delinkuentziatik heldu beharrean, osasun-publikoko arazo gisa lantzen hasi ziren mende hasieran. «Gaiak duzun jarre-ran tematu behar zara, eman astia emaitzak ikusteko. Opi-

Drogen aferan Oregonek errezeta berriak probatu ditu azken urteotan, baina atzera buelta egin du orain: penalizazioa eta zigorra.
Robert NICKELSBURG | GETTY IMAGES

zeoen krisia bezalako gai konplexua lantzen ari zarenean, ezin duzu aldaketa itzelik espero egun batetik bestera» dio Portugalen gaiak arduratu den João Goulão.

Oregoneko Health Justice Recovery Alliance-ko (Osasun-justizia Berreskuratzeko Aliantza) Tera Hurst bat dator portugaldar ordezkariekin: esperimentuari «ez zaio behar zuen astirik eman». Drug Policy Alliance-k (Drogen Politikaren Aliantza) gogor kritikatu du Oregon erre-zeta zaharretara itzultzea. «Desinformazio kanpaina handia

izan da, estatu horretako arazo guztien errua Measure 110i egozteko. Interes politikoak, berriz hautatzea esaterako, oregondarren ongizatearen aurretik jarri dituzte. Eta beltzen eta indigenen biziak ere sakrifikatu dituzte, Oregongo espetxeen buruzagi ohia buru duten korporazio handien interesen menpe». Izan ere, gogora dakarte, esperimentuak hiru urtean esperotako emaitza izan ez duen arren, «50 urte baino gehiagoko ebidentzia daukagula gerraren aurkako drogak, drogengatik jendea atxilotzeak eta espetxeratzeak porrota dakartela».

DPAk onartu du Measure 110ek ez duela esperotako emaitza izan, baina argi dute «delituen, etxegabeen eta gaindosi-heriotzen igoerak» ez direla neurri horrengatik izan. Areago, ondorio positiboak izan dituela azpimarratu dute: «Milaka oregondar gutxiago atxilotu dituzte, bizi osoan lana, etxea eta zerbitzuak izatea

Health Justice Recovery Alliance-ko Tera Hurst-ek dioenez, esperimentuari «ez zaio behar zuen astirik eman». Policy Alliance-k gogor kritikatu du Oregon errezeta zaharretara itzultzea

«Desinformazio kanpaina handia izan da, estatu honetako arazo guztien errua Measure 110i egozteko. Interes politikoak ongizatearen aurretik jarri dituzte»



oztopatzen duen aurrekari penalik ez da sortu». Sistema kriminalean 40 milioi dolar aurreztu direla ere gaineratu dute, diru hori menpekotasunei aurre egiteko zerbitzuetara bideratuta. Guztira, 300 milioi dolar erabili dira zerbitzu horietan bi urtetan; osasun-azterketak laukoiztea ekarri du horrek, bestelako tratamenduak ere bi eta hiru aldiz gehiago izatea, tartean etxebizitza eta lana bilatzeko.

Baina argi dute gehiago egin zitekeela: «Politikariek kale egin dute Measure 110en potentzialitate guztia lantzeko orduan. Osasun-agintaritzak ez du behar besteko babesik eman, finantzaketa berandu heldu zaie zerbitzua eman behar zutenei. Medikuzterketen telefonoa publikoki ez ematea ere erabaki zuen estatuak». Era berean, ez dute ahaztu polizia asko neurriaren aurka zeudela, eta estatuak ez ziela behar bezalako prestakuntzarik eman egoera berrian trebatzeko. Pan-

demiaeren erdian iritsi zen neurria, halaber. 2021eko ekainerako, etxegabetzeen moratoria amaitu zen, eta jende askok amaitu zuen kalean.

Era berean, lehentxeago, 2019an, AEBetako Pazifikoko kostaldean hasitako fentaniloaren krisiak bete-betean jo zuen, baina «gaindosien arazoa krisi nazionala da», dio DPAk. Oregonen auzo diren lau estatuetan antzeko hazkundeak izan dute gaindosiek. Eta ezin ahaztu bi arazoren arteko lotura: etxe-gabeziaren arazo kronikoa eta droga-menpekotasuna. «Drogen erabilera publikoa nora joan eta laguntza jasotzeko lekurik ez izatearen ondorio da. Drogak bizirauteko beharrian bihurtu daitezke kalean bizi denak bizirik jarraitzeko».

Azken arazoa pertzepzioa bera da: kriminalitate-tasek nabarmen egin dute behera aurtun Ameriketako Estatu Batuetan, oro har, eta Oregonen, zehazki. Baina jendearen inpresioa bestelakoa da, hedabideek eta mezu alarmistek hauspotuta.

BIRKRIMINALIZAZIOA

Apirilean onartu eta egunotan indarrean sartutako HB4002 legeak berriz ere kriminaliza-

Egunotan indarrean sartutako HB4002 legeak berriz ere kriminalizatzen du drogak edukitzea. Erabilera pertsonalerako izanda ere, sei hilabetera arteko kartzela zigorra jasotzen du

Legez kanpoko drogekin harrapatzen dituztenei aukera emango diete: drogak edukitzearen akusazio kriminalari espetxean aurre egin ala tratamendu bati ekitea

tzen du drogak edukitzea. Erabilera pertsonalerako izanda ere, drogak edukitzea sei hilabetera arteko kartzela zigorra izan lezakeen delitu bihurtu da. Jendaurreko droga-kontsumoaren aurka jotzea erraztuko dio poliziari neurriak; besteak beste, zigor gogorragoak ezartzen ditu parkeetatik gertu drogak saltzeagatik.

Bob Day Portlandeko poliziaburuak iragarri du droga-kopuru txikiez arduratzean oso litekeena dela, atxilotaketaren batean, indarra erabiltzen amaitzea, eta gaitz bereziak izanda drogatuta dagoen jendea hiltzea ere gerta litekeela poliziaren atxiloaldian zehar. «Argi utzi nahi dut begiak zabal-zabalik izango ditugula. Badira arriskuak, horiek murrizteko gure esku dagoen guztia eginda ere».

Birkriminalizazio legeak ez du zigorra bakarrik aurreikusi. Oregoneko konderriak tratamendu-alternatibak sortze- ra animatzen ditu, baina ez ditu derrigortzen. Hala, eskualde bakoitzean neurri desberdinak egon litezke. Teorian, helburua bada oraindik jendea justizia penaleko sistematik atera eta mendekotasun eta osasun mentaleko zerbitzuetara bideratzea. Hala, legez kanpoko drogekin harrapatzen dituztenei aukera emango diete: drogak edukitzearen akusazio kriminalari espetxean aurre egin ala tratamendu bati ekitea. Hau da, isunak ekiditeko, portae- ra-osasuneko programa bat osatu beharko dute, eta «desbideratze-programa» batean parte hartu.

Portland dagoen konderriak, esaterako, ez zuen prest droga- tik aldentzeko zentrorik irailaren leian, legea indarrean sartu zenean. Eta irekitzen denean ere, oraingoz behintzat, astegunetan baino ez da zabalik egongo. Hau da, gauzez edo asteburuz drogekin harrapatzen dituztenak, tratamendura joatea erabakiko balute ere, giltzapean eman beharko lituzkete zentroa ireki arteko orduak edo egunak.

Behean, 2023ko ekainaren 12an poliziak San Diegon harrapatutako fentanilo pilulak. Alboan, mediku bat, fentaniloa anestesiko gisa erabiltzeko dosia prestatzen. Craig KOHLRUSS- ANGELP | EUROPA PRESS

